



**KULTURA-ONDAREA**

**3**

# 3

1. **Sarrera**
  - 1.1. Euskal kultura-ondarea babestea eta ezagutaraztea
  - 1.2. Jarduera-ildoen eskema
  - 1.3. Aurrekontua
  
2. **Jarduera-ildoak**
  - 2.1. Museoak
  - 2.2. Liburutegiak
  - 2.3. Dokumentu-ondarea
  - 2.4. Kultura-ondarea
  
3. **Etorkizuneko erronkak**



## 1. Sarrera

### 1.1. Euskal kultura-ondarea babestea eta ezagutaraztea

Iraganetik oinordetzan jaso ditugun ondasunak, gaurko egunean bizi duguna eta hurrengo belaunaldiei utziko dieguna har daiteke ondareztat. Ondare hori iraganetik oinordetzan hartutako ondasun multzoa den aldetik, gure historiarekin lotzen gaituen haria da. Urteak joan ahala, ondarearen ikuspegiaren parametroak arras zabaldu dira, eta gaur egun kontzeptu orokor bat da, ikuspegi antropologikoa azpimarratzen duena. Kontzeptu zabal eta dinamikoa, malgua eta irekia da, etengabe osatzen ari dena, guztiz lotuta baitago ondasunei aitortzen zaien balioarekin.

Gizarte bakoitzari dagokio bere ondarea zaintzeko ardura, bai bere onerako bai gizadiarentzat duen esanahiarengatik, UNESCOren Ondare kulturalaren eta naturalaren babeserako hitzarmenak, 1972an onartuak, jasotzen duen bezala.

Bestalde, azkeneko hamarraldi hauetan aldatu egin da ondarearen kontzeptua, eta orain ez da oroimen kolektiboaren oinarria soilik, edo historia ezagutzeko ezinbesteko tresna soilik, baizik eta funtsezko baliabide sozio-ekonomikotzathartzen da, herrien garapen iraunkorra ziurtatzeko ezinbesteko tresnatzat. Horrez gainera, ez da ahaztu behar artean ezagutza, ordezkaritasun sozial eta kulturala eta kulturaraz gozatzeko aukerak aski demokratizatu direla.

Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondareari dagozkion politikak Kultura Ondarearen Zuzendaritzak gauzatzen ditu; Zuzendaritza hau arduratzen da ondarea zaintzeaz, aberasteaz, babesteaz, zabaltzeaz eta sustatzeaz, uztailaren 3ko Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean agintzen denaren arabera, bai eta, orobat, abenduaren 1eko 7/2006 Legeak, Euskadiko Museoei buruzkoak, eta urriaren 26ko 11/2007 Legeak, Euskadiko Liburutegiei buruzkoak museoei eta liburutegiei dagokienez agintzen dituzten eginkizuneez ere.



2009. eta 2010. urteetan, Euskadiko kultura ondare aberatsa babesteko, ezagunago eta baloratuago bihurtzera bideratu da Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren politika. Ildo horretan, bada, elementu babestuen kopurua nabarmen handitzeko aukera eman duten kudeaketa-moduak indartu dira; gizartea ondare hori osatzen duten balioez eta balio horiek zaintzeak eta babesteko sortzen dituen arazoez sentsibilizatzeko politikak egin dira; eta herritarrak guztion altxor horren hauskortasunaz, galtzeko dagoen arriskuaz eta datozen belaunaldiari uzteko zaindu beharraz kontzientziatzeko ahaleginak egin dira. Ildo beretik, aurreko legeria garatu edo berriz landu behar izan da, eta Euskadiko Artxibategi, Liburutegi eta Museoen Sistemak ongi finkatzen lagunduko duten proiektu estrategikoak eta azpiegiturak bultzatu.

## 1.2. Jarduera-ildoen eskema

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ondarea osatzen duten lau eremuetan egiten du lan, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, Kultura Ondareari buruzkoak, agintzen duen bezala. Ondare horren parte dira ondarea gordetzen duten azpiegiturak eta zentroak, hala nola museoak, liburutegiak eta artxibategiak, eta orobat ondare hori osatzen duten ondasunak. Alor horietako bakoitza sustatzeko zerbitzu berezitu hauek ditu Zuzendaritza honek: Museoen Zentroa, Liburutegien Zentroa, Ondare Dokumentalaren Zentroa (IRARGI) eta Kultura Ondarearen Zentroa.

Gure jarduera-ildoak, bada, aipatu diren eremu horietako bakoitzean egiten ari diren proiektu estrategikoetara eta araudia garatzeko lanetara zuzentzen dira, alde batetik, eta bestetik, Euskadiko Museo, Liburutegi eta Artxibategien Sistemak finkatzeko Programak kudeatzera, bai eta kultura ondarea babesteko, defenditzeko, ezagutarazteko eta zabaltzeko bideak sortzera ere.

ESPARRUAK	JARDUERA-ILDOAK	ZERBITZUAK
Museoak	Proiektu estrategikoak eta araudia garatzea	Museoen Zentroa
	Euskadiko Museoen Sistema Nazionala	
Liburutegiak	Proiektu estrategikoak eta araudia garatzea	Liburutegi Zerbitzua
	Euskadiko Liburutegi Sistema	
	Irakurketa sustatzea	
Dokumentu-ondarea	Proiektu estrategikoak eta araudia garatzea	IRARGI Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa
	Artxibategien Euskal Sistema	
	Zabalkundea	
Kultura-ondarea	Proiektu estrategikoak eta araudia garatzea	Kultura Ondarearen Zentroa
	Ondarea babestea	
	Ondarea sustatzea eta ezagutaraztea	
	Lankidetzak	
	Zabalkundea	

### 1.3. Aurrekontua

2010ean, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren aurrekontuak Kultura Sailaren aurrekontu osoaren %10,2 hartzen du. 2009an ia 36 milioi euro bideratu ziren honetarako, eta 2010ean 30 milioi.

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren gastuen aurrekontua zerbitzuz zerbitzu, 2009-2010**

	2009		2010	
	€	%	€	%
Egitura eta Laguntza	5.899.054	1,9	7.376.160	2,5
Gazteria eta Gizarte Ekintza	6.473.748	2,1	5.658.740	1,9
Kirolak	14.261.334	4,7	14.958.194	5,0
Kulturaren Sustapena	31.000.350	10,1	34.420.765	11,6
Ondare Historiko Artistikoa	35.954.838	11,8	30.141.546	10,2
Gizarte Hedabideak	155.189.336	50,8	150.180.000	50,6
Hizkuntza Politika	56.648.340	18,5	54.221.595	18,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>305.427.000</b>	<b>100</b>	<b>296.957.000</b>	<b>100</b>

Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren aurrekontuaren kapituluz kapituluko gastuaren azterketak erakusten duenez, kopuru osoaren ia %60 transferentzietarako eta diru-laguntzetarako –kapitalerako zein gastu arruntetarako– esleitzen da (4. eta 7. kapituluak). Transferentzia arruntek bere pisuari eutsi diote aurrekontuan. Aise ikus daitekeen bezala, inbertsio errealek (6. kapituluak) nahiko pisu ohargarria dute, aurrekontu osoaren %17 inguru hartzen baitute. Beste alde batetik, museo-erakundeetan parte hartzeak eragiten dituen finantza-aktiboek Zuzendaritza honen gastuetarako aurrekontuaren %8 inguru hartzen dute.

**Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren gastu-aurrekontua kapituluz kapitulu 2009-2010**

Kapitulua	2009		2010	
	€	%	€	%
1. kap. Langile-gastuak	1.866.155	5,2	1.934.412	6,4
2. kap. Funtzionamendu-gastuak	3.161.583	8,8	2.615.626	8,7
4. kap. Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak	10.562.374	29,4	10.902.388	36,2
6. kap. Inbertsio errealek	6.445.000	17,9	5.112.000	17,0
7. kap. Kapital eragiketarako transferentziak eta diru-laguntzak	10.914.676	30,4	6.932.676	23,0
8. kap. Finantza-aktiboen gehikuntza	3.005.050	8,4	2.644.444	8,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>35.954.838</b>	<b>100</b>	<b>30.141.546</b>	<b>100</b>



## 2. Jarduera-ildoak

### 2.1. Museoak

#### Sektorea. [Ordenatzen ari den museo-mapa bat](#)

Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio eskumena estatuaren jabetzakoak ez diren museoetarako dagokien guztian. Beste alde batetik, Lurralde Historikoen Legeak Alduendiei ematen die eskumen osoa haien jabetzakoak diren museoetarako dagokienez. Euskadiko museoek eta bildumek behar den babesa eta antolamendu egokia izan zezaten, abenduaren 1eko 7/2006 Legea, Euskadiko Museoetarako buruzkoa, eman zen; Museoen Zentroari dagokio legeak dioena abian jartzea.

1902an Donostiako Udal Museoa, Euskadiko lehenengoa, jendearentzat zabaldu zenez geroztik, arras aldatu dira gauzak sektore honetan. Giltzarrietako bat museoaren kontzeptuak izan duen aldaketa izan da: ondasunak edukitzeko eta gordetzeko instituzioak izate hutsa gauditu, gaur egun kultura eta gizarte proiektuetarako gunetzat, sorkuntza bultzatzen duten eta etengabeko eginkizun didaktiko erabakigarria duten lekutzat hartzen dira. Erakusketekin, ikerketarekin eta artea gozatzearekin lotutako zerbitzuak eskaintzen dituzten garrantzi handiko kultura-eragileak dira museoak; kulturaren eta zientziaren parte hartzea bultzatzen duten, kultura eta kulturaren adierazpen-moduak zentzurik zabalenean garatzen dituzten lekuak dira.

*Euskadiko Museoen eta Bildumak 2010eko txosten estatistikoak ematen dituen datuen arabera, 64 instituzioek osatzen dute museoen mapa, eta kultura-ondarearen esparru desberdinetan espezializatuak dira gehienak. Azpimarratzekoa da oso, gainera, %80a azkeneko 25 urte hauetan sortuak izatea. Euskal museo gehienak jabetza*



publikokoak dira (10etik 6). Gipuzkoak ditu beste lurraldeek baino museo gehiago (%42,9) eta bera da, halaber, azken aldi honetan sortutako museo gehien dituen ere. Araban, berriz, zentro berezituak dira gehienak (%35,7). Eta Bizkaia da bisitari gehien izaten dituen lurraldea (10etik 6).

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak azkeneko urte hauetan egin duen lana sektore honen araudia eta teknologia garatzera bideratu da batez ere, sektorea egituratzera eta ordenatzera, Euskadiko Museoen Sistema Nazionala osatzeko asmoz.

### Jarduera-ildoak. **Euskal museoen sistema finkatu**

- **Proiektu estrategikoak eta araudia garatzea.**  
**Erregistro informatizatu berria eta industria-lanaren kultura, ekimenaren ardatzak**

Euskal museoen panorama egituratzen duen lege-markoa abenduaren 1eko 7/2006 Legea, Euskadiko Museoei buruzkoa da; museoen eta bildumen erregistroa, aitortpena eta kudeaketa eraginkorra eta Museoen Sistema Nazionalaren garapena bideratuko dituen arau-marko baten arabera ordenatzea da lege horren helburua.

Arauk garatzeari dagokionez, garai honetan **Euskadiko Museoen eta Bildumen Erregistroa** antolatzea eta haren funtzionamendua, Erregistro horretan sartzeko bete behar den prozedura eta museo edo bilduma bat «Euskadiko Museo» edo «Euskadiko Bilduma» bezala aitortzeko bidea arautzea helburutzat duen Legearen garapeneko araudia prestatu da. Hala, Erregistro informatizatuko sistema prestatu, ezarri eta abian jarri da; horri esker, alde batetik, kontsultak eta tramiteak baliabide informatikoz egin daitezke eta, bestetik, erregistroa eguneratuta edukitzeko kudeaketa eta mantenimendu lanak errazten zaizkio Museoen zentroari.

Planifikazioari dagokionez, etorkizunean **Industria Lanaren Kultura Zentro** bat egiteko proiektuak izan du lehentasuna, zentroaren kokapena eta beharko diren inbertsioak baloratzea ere barne. Euskadiko zientziaren, teknikaren eta industrializazio prozesuaren ezagutza sustatzea du helburu proiektu honek, bai eta industrializazioak gizartearen eragin dituen aldakuntzen ezagutza ere; eta horrekin lotutako ondare higigarria –tresnak, makinak– eta higieztina –eraikinak– gordetzea ere bai, jakina. Labur bilduta, Industria Lanaren Kultura Zentroa iragan industrialia ezagutarazteko ekipamendu bat izateko eta lurralde honetan gai hori bera duten museo ugariak egituratuko dituen goreneko zentro bat izateko dago pentsatuta.

Beste alde batetik, sektore honetan ari diren erakundeekin eta eragileekin koordinatzeko eta elkarlanean aritzeko lana egiten jarraitu da, Euskadiko museo-ondarea sustatzeko, ikertzeko, babesteko eta ezagutarazteko asmoz, Euskadiko Museoen 7/2006 Legeak ezartzen dituen eginkizunen arabera.

Euskadiko Museoen Sistema Nazionala.

## Kudeaketarako tresnak, sustatzeko Programak eta zuzeneko parte-hartzea sektore honetan

Euskadiko Museoen eta Bildumen funtsen Inbentario Orokorra antolatzeko eta eguneratuta izateko asmoz, **museoen eta bildumen sareko sistema informatiko bat (EMSIME)** sortu dugu, funtsak eta haiei dagozkien prozesuak kudeatzeko, eta museoak eta bildumak Sistema horretan sartzen hasi dira. Hitzarmen bat behar da Sistema hori denen artean ustiatzeko oinarriak ezartzeko. Orain arte Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin, Lenbur Lurralde Museo Fundazioarekin, Makina erremintaren Museoarekin, Sagardoaren Museoarekin, Sabino Arana Fundazioarekin eta Eibarko Udalarekin sinatu dira hitzarmenak. Erakunde horiek 11 museoren jabeak dira, eta horietako 8 aplikazioa erabiltzen ari dira dagoeneko. Kudeaketa kontrolatzeaz eta informatizatzeaz gainera, Euskadiko ondare higigarriaren katalogo bateratu bat egin eta herritarrentzat eskuragarri jarri ahal izatea izango da sistema honek ekarriko duen onurarik garrantzitsuenetako bat. 2009an 236.640 euro xedatu ziren proiektu hau finantzatzeko.

Museoen Zentroak bultzatzen duen diru-laguntza-programari dagokionez, ohiko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak ematen jarraitu dugu, hala nola erakusketak eta argitalpenak, programa didaktikoak garatzea, jardunaldiak eta hitzaldiak, web orriak sortu eta garatzea edo, kudeaketa hobetzeari begira, inbentario eta katalogatze-lanak, orientabidezko planak, bideragarritasun-planak, kalitate-planak edota merkatuen zein bezeroen azterketak egitea. 2009 eta 2010ean 38 diru-laguntza eman ziren museoen alorreko 25 erakunderi; kopuru horiek berdinak izan dira bi urtealdietan.

### Emandako laguntzen laburpen-koadroa

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Museoentzako laguntzak	38	687.952	38	609.831
<b>GUZTIRA</b>	<b>38</b>	<b>687.952</b>	<b>38</b>	<b>609.831</b>

Baina museo-zentroyen jarduerari emandako sostengu horrez gainera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko museo nagusien –Bilboko Arte Ederren Museoa, Bilboko Guggenheim Museoa, Gasteizko Artium Museoa eta Gernikako Bakearen Museoa– zuzeneko kudeaketan duen parte-hartze handia ere kontuan hartu behar da. Garrantzi hori ongi erakusten dute aipatutako erakunde horientzat emandako zuzeneko diru-laguntza bereziek: 2009an hamar milioi eurotik gora, eta 2010ean bederatzimilioi eta erdi.

Aipatutako erakundeen kudeaketan zuzenean parte hartzeaz gainera, 2009an eta 2010ean, beste bi zentroyen obrak finantzatzen lagundu du Kultura Sailak: Donostiako San Telmo Museoa eta Getariako Cristobal Balenciaga Museoa.

Azkeneko honi dagokionez, esan beharra dago Eusko Jaurlaritzak berak sartu nahi izan duela, bere gogoz, Cristobal Balenciaga Fundazioan, erakunde hori Euskadin gehiago errotzeko, museo horren etorkizuna Euskal Autonomia Erkidegoan bideratzen diren kultura-politiketan txertatzeko, Fundazioaren kudeaketa egokian eraginkortasunez parte hartzeko eta Cristobal Balenciaga moda-sortzailearen irudia nazioartean zabaltzen laguntzeko.

### Zuzeneko laguntza berezien laburpen-koadroa (€)

	2009	2010
Bilboko Arte Ederren Museoaren Fundazioa	2.293.718	2.087.259
Bilboko Guggenheim Museoaren Fundazioa	7.638.052	6.721.486
Artium Fundazioa	700.400	620.554
Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa	131.840	110.500
Meatzeetako Museoa Fundazioa*	*	250.000
Berroeta Aldamar S.L. (Balenciaga Museoa)	1.000.000	500.000
Donostiako Udala (San Telmo)*	1.500.000	--
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.264.010</b>	<b>10.289.799</b>

\* Oharra: kasu hauetan diru-laguntzak ez dira Eusko Jaurlaritzak egituran duen parte-hartzeari dagozkionak.

## 2.2. Liburutegiak

### Sektorea. **Liburutegiak hezkuntzaren, kulturaren eta informazioaren eragile**

Liburutegiak oinarrizko eta ezinbesteko ekipamenduak dira informazioaren eta ezagutzaren gizartean gizartea eta kultura garatzeko, kulturara iristeko bitartekari gisa eta gizartearen kohesioaren eragile gisa duten eginkizunagatik. Horrela dio zehazki urriaren 26ko 11/2007 Legeak, Euskadiko Liburutegiei buruzkoak: «Lege honen bitartez, oinarrizko eskubide diren adierazpen-askatasuna eta informaziorako irispide publikoa bermatu nahi dira, eta, azken batean, euskal gizartearen sektore guztietan zabaldu nahi da irakurzaletasuna, oinarrizko zutabea baita norbanakoaren prestakuntza, garapen eta heziketan. Horretarako, ordea, liburutegi publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuek herritarren aukera-berdintasuna bultzatu behar dute, nork bere askatasunetik aukera izan dezan bere burua lantzeko, literatura- eta kultura-interesak gauzatzeko, ezaupideak etengabe areagotzeko, pertsona edo herritar gisa dituen gaitasunak hobetzeko, nazioarteko errealitateetara iristeko eta bitzta osoan zehar ikasteko».

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen datuen bilakaerak garbi erakusten du azkeneko urte hauetan izan den joera positiboa. 2009an 172 liburutegik osatzen zuten Sare hori, eta 2008an baino 38.074 erabiltzaile berri gehiago



eta 250.000 ale gehiago erregistratu ziren. Jarduerari dagokionez, 1.985.780 mailegu egin ziren. Azpimarratuko genuke, gainera, geroz eta gehiago erabiltzen direla baliabide telematikoak Sarearen ondareetara eta zerbitzuetara iristeko, aurreko urtean baino %17 gehiago. 2010ean goranzko joerari eutsi zitzaion: 35.000 inguru erabiltzaile berri gehiago, aurreko urtean baino 350.000 ale gehiago eta 40.000 kontsulta gehiago OPAC liburutegietako materialak on line eskuratzeko katalogo automatizatuaren bitartez.


Euskal Autonomia Erkidegoak Liburutegi Sistema egituratu bat du, lege-marko batek arautua, eta herritarrei zerbitzu ona eskaintzen dien Irakurketa Sare Publiko bat, sektore honetan diharduten eragileekiko elkarlanean egin den ahaleginaren bitartez lortua. Kultura Sailaren politikaren helburua zerbitzu horiek finkatzea eta indartzea da, eta horretarako bi alorretan ahaleginu gara batez ere: inguru digitala eta irakurketa sozializatzea.

### Jarduera-ildoak. **Paradigma digitalerako bidea**

- **Proiektu estrategikoak eta arauak garatzea. Mundu digitalaren erronkari erantzuteko proiektu estrategikoak**

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak Liburutegi Zerbitzuaren bitartez bultzatzen dituen ildo estrategiko nagusiek oso kontuan hartzen dute teknologia berriek informazioaren eta ezagutzaren esparruan duten eragina. Aipatzen da, besteren artean, **Liburuklik, Euskal Liburutegi Digitala**,<sup>5</sup> ahaleginak eta gastuak aurrezteko eta bikoiztasunak ekiditeko erakundeen arteko elkarlanerako eta lankidetzarako eremu bat izateko pentsatua. Garai honetan kulturaren azpiegitura honen euskarria izango den gordailu digitala egituratu da. Ondare digitala zaintzeko eta gordetzeko nazioarteko estandar guztiak betetzen dituen kode irekiko software bat aukeratu da. Horrez gainera, Eusko Legebiltzarreko eta Loiolako Santutegiko bibliografia ondare guztiak kargatu dira; horrela bada, 180.000 irudi digitalizatu inguru zeuden 2010ean, kontsultatzeko, inprimatzeko, eta abarretarako prest. Euskal liburutegi

<sup>5</sup> 2011ko urrian jarri zen martxan.



digitalak lagungarri izango da euskal liburutegien sistemaren koordinazioa indartzen, zeren erakunde guztien artean gure bibliografia ondarea zaintzea, ezagutaraztea eta hartarako irismena bermatzen baitu.

Beste proiektu estrategiko bat **Ondarenet**, euskal ondare digitalaren fitxategi elektronikoa da, eta euskal ondare digitala gordetzea du helburu, horretarako euskal gizartearen era guztietako jakintzaren edo adierazpenaren fruitua diren eta beren balioagatik etorkizunerako gorde behar diren baliabide digitalak atxikiz eta elektronikoki artxibatuz. Orain arte 1.600 url-etik gora atxiki dira.

Hirugarren proiektu estrategikoa Euskadiko udal liburutegietako profesionalak teknologia aurreratuertarako prestatzeko plana da, **Kzliburutegi@rekin** izenekoa. Plan hori, Liburutegien Zerbitzuak koordinaturik, Euskadi Informazio Gizartean Planarekin (EIGP) eta KZgunearekin elkarlanean garatu da. Liburutegietako profesionalen birziklatze-premiak eta etengabeko prestakuntza beharrak eraginda sortu da, arrakala digitaletik ihes egin beharra duen jende talde handi batek osatzen baitu sektore hori. Beren eguneroko lanarekin lotura duten Programak edo aplikazioak ezagutu eta mendera ditzaten nahi da; oinarri-oinarrizko maila batetik hasi eta «liburuzain digitala» deitzen denari dagozkion gaitasunak dituen maila aurreratu baterainoko bide bat diseinatu da horretarako. 2009an eta 2010ean 80ren bat udalerritako 200 profesionalak hartu zuten parte jardunaldi hauetan.

Ondareneten eta Liburuklikaren aurrekontu bateratua 300.000 eurokoa izan zen 2009an eta 265.000 eurokoa 2010ean. Kzliburutegi@rekin prestakuntza-plana EIGPren bitartez finantzatu zen.

- **Euskadiko Liburutegi Sistema. Koordinazioa eta elkarlana, lanerako ardatzak**

Kultura Sailak du Euskadiko Liburutegi Sistemaren baliabideak kudeatzeko orientabideak emateko ardura, elkarlanean oinarriturik, baliabideei etekin hobea ateratze aldera.

**Erregistroen eta baseen kudeaketa.** Aipatzekoa da **Lege Gordailuaren Erregistroa** Kultura Sailaren ardurapean dagoela; horren ondorioz, 5.490 erregistro-zenbaki katalogatu ziren 2009an eta 7.443 dokumentu 2010ean. Hiru Lurralde Historikoetatik jasotzen den lege-gordailua katalogatu eta gainerako liburutegiekin batera partekatzen den datu bibliografikoen Absysnet datu-basean sartzen da. Erregistro bibliografiko horiek guztiak eskuragarri daude Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen on-line katalogotik.

Abian jarritako beste proiektu bat **autoritate elebidunen basearen kudeaketari** dagokiona da. Autoritate-erregistroen normalizazioaren bitartez 11.000 autoritate inguru sortzen dira urtean, euskaraz eta gaztelaniaz. Katalogo bibliografikoaz landako katalogo bat da, MARC formatuan, eta on line eskuragarri jarrita dago, bestea bezala.

**Erakundeekiko elkarlana.** Liburutegi-zerbitzuak hobetuz jarraitzeko, erakundeen arteko elkarlana behar da. Ildo honean aipatzekoa da ondare bibliografikoa katalogatzeko **Kultura Ministerioarekin egindako hitzarmena** (PABI), 1994an sinatu zenez gero berrituz doan lankidetzaproiektua. Bestalde, Liburutegien Zerbitzuak Liburutegien Lankidetzarako Kontseiluan parte hartzen du, Liburutegi Nazionalen, Publikoen eta Eskolako Liburutegien taldeetan, zehazki.

Elkarlanean bideratzeko beste proiektuetako bat haur eta gazteentzako liburua dela-eta **Donostia Kulturarekin** egindako hitzarmena da. Donostiako Haur eta Gazteentzako Liburuaren Dokumentazio Zentroaren bidez, gizatalde horien irakurketarekin zerikusirik duten formazio eta orientazio profesionaleko zerbitzuak hobetu nahi dira. Hiru formazio-ikastaro antolatzen dira urtero, hiru Lurralde Historikoetan bana, haurrentzako eta gazteentzako liburutegien kudeaketari buruz, Euskadiko liburutegietako langileentzat; 90 langile inguruk hartzen dute parte urtean.

Era berean, 2009ko udazkenean Irakurketa Publikoko Sarea Donostiako, Santurtziko eta Bilboko liburutegiekin osatzeko harremanak hasi ziren.

Laguntza teknikoa eta liburuzainek parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak. Liburutegien Zerbitzua arduratzen da sarean lan egiten duten 570 profesionalen eskakizunei eta kontsulta teknikoei erantzuteaz. Era guztietako galderei erantzuten zaie: katalogazioaz, baliabideez, Absysnet programaz, eta abarrez.

Garai honetako berrikuntzen artean, aipatzekoak dira 2011ko urtarrilean Euskadiko Liburutegi publikoen blogetarako plataforma korporatiboa abian jartzeko lanak. Liburutegi eta profesionalen komunitate indartsu bat plazaratuko duen eta zalantzak argitzen lagunduko duen plataforma eleanitz bat izango da. Ekimen hau Liburutegien Zerbitzuak gizarte-sare nagusietan (Facebook, Twitter, eta abar) duen presentziaren osagarria da; horrek asko laguntzen du jarduerak sarean zabaltzeko eta sektore honetako profesionalen eta erabiltzaileen artean parte hartzeko eta harremanak izateko.

**Liburutegien estatistikak.** Orain arte deskribatu diren jarduera hauek osatzeko, Liburutegien Zerbitzuak Kulturako Ministerioarekin koordinaturik 2001ez gero egiten dituen estatistikak eman daitezke. 2009an 247 liburutegietako informazioa bildu zen.



### Elkarlaneko proiektuen aurrekontuen laburpena (€)

	2009	2010
Donostia Kulturarekiko hitzarmena	24.000	24.000
Lege-gordailuaren kudeaketa. Autoritate elebidunen basea Irakurketa Sare Publikoarentzako laguntza PABI hitzarmenak	360.000	300.000
Estatistika-bilketa	8.000	9.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>392.000</b>	<b>333.000</b>

**Irakurketa Sare Publikoarentzako laguntza.** Liburutegi-zerbitzu onak eskainiko badira, ondare aberatsak eta erabiltzailearentzat erakargarriak izango direnak, ekipamendu egokia eta teknologia berrietara egokitua eta Euskal Liburutegi Sistema osoaren informazio bibliografikoa eskuragarri jarriko duen katalogo bateratu bat behar dira.

Euskadiko Irakurketa Sare Publikoan sartuta dauden liburutegien azpiegitura ekipamendua bi programaren bitartez bideratzen da:

- **Funts bibliografikoak erosteko laguntza-programa.** Laguntza hauen artean badira liburutegiaren ondarea sortzen hasteko laguntzak, liburutegi sortu berrientzat, edota liburu-ondarea berritzeko erosketak egiteko, gainerako liburutegientzat. Erosketa horiek euskarazko eta gaztelaniazko liburuak dituztela bermatu behar dute, eta ezinbesteko baldintza da erosketen %10 gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratutako liburuena izatea. Programa honi esker erregistro bibliografikoen datu-basea 250.091 liburututan handituzen 2009an, eta 2010ean beste 350.000 gehitu ziren. Kopuru handitze horren ondorioz, gaur egun 3.607.121 liburu dituzte erabiltzaileek kontsultatzeko edo mailegatzeko.
- **Ekipamendua berritzeko eta teknologia berriak jartzeko programa.** Udal liburutegiak herritarrentzat informaziora eta ezagutzara iristeko sarbideak dira; gaur egun teknologia berrietara egokitutako ekipamendua eta hornidura behar da horretarako (hardwarea, softwarea eta komunikazio-sareak).

**Laguntzen laburpen-koadroa**

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten Udalak/Erakundeak	Diru-laguntzak €	Laguntza jaso duten Udalak/Erakundeak	Diru-laguntzak €
Bibliografia funtsetarako laguntzak	168	832.000	168	837.000
Teknologia berrietarako laguntzak	91	500.000	91	429.906
<b>GUZTIRA</b>	<b>259</b>	<b>1.332.000</b>	<b>259</b>	<b>1.266.906</b>

- **Irakurketa sustatzea.** Liburutegien izateko arrazoia eta etorkizuna

Herritar irakurleak dira, azken finean, deskribatu den lan honi guztiari zentzua ematen diotenak. Liburutegiek ematen dituzten zerbitzuak ezagutarazteko kanpainak eta irakurketa sustatzeko Programak ezinbestekoak dira liburutegiek orain arte izan direna izaten jarraitzeko, alegia, informazioa eskuratzeko, hezkuntzarako, ezagutzarako eta kulturarako gaur egun diren oinarri-oinarrizko zerbitzuak.

«**Munduko paisaiak**» kanpaina. «Liburutegiak Topaleku - Las Bibliotecas, un lugar de encuentro» programaren barruan dago kokatuta; 2009an aurkeztu zen, Liburutegien Nazioarteko egunean (urriaren 24an), eta kulturen arteko hurbiltetan eta integrazioan liburutegiek duten eginkizun garrantzizkoa indartzea du helburu. Liburutegiak, herritarrei liburutegi-zerbitzuak eskaintzeaz gainera, topalekuak ere badirela azpimarratu nahi dugu kanpaina honen bitartez. Euskadiko hamar udalen laguntzarekin hamahiru herrialdetako ondare bibliografiko bat sortu da. Ekimen hau abian jarri eta nabarmen handitu da liburutegietara joaten diren etorkinen kopurua.

«**Bularretik Mintzora**» kanpaina. 2007an jarri zen abian, Kultura Sailak eta Galtzagorri Haur eta Gazte literatura Elkartek elkar hartuta, gaztetxoaren artean irakurtzeko ohitura indartzeko asmoarekin. Hauren lehenengo sei urteetako eragina neurtu nahi du kanpaina honek. Funtsezkoena familia, eskola eta liburutegi publikoaren arteko loturan datza. Horretarako, hain zuzen, adin horretarako moduko materialak, diptikoak, liburuxkak eta liburuak prestatzen dira urtero.

**Audioliburuak mailegatzeko plataforma.** Audioliburuetan liburuaren edukiak grabatzen dira, irakurle profesional batek ozen irakurriak; jatorrizko obren bertsio osoak eskaintzen dituzte. Irakurketa ohiko eran egitea ezinezkoa dutenentzako pentsatuak dira, baina aldi berean hizkuntzak ikasten laguntzen dute edota liburuari begira egon ezin dugun uneak aprobetxatzen. 80 liburu jarri dira eskura gaztelaniaz eta 1.300 deskargatik gora izan dira.



**Irakurketa sustatzeko laguntza-programa.** Haurtzaroan eta gaztaroan errazago hartzen ditugu irakurzaletasuna eta liburutegietara joateko ohitura. Gazteen eta hauren beharrei erantzutea Sail honen politikaren helburu nagusietako bat da. Laguntza-programa honen bitartez, liburu-erakusketak, haur edo gazteentzako literatura-lehiaketak, irakurketa-jarduerak, haurrak erakartzeko kanpainak eta profesionalentzako prestakuntza bereziko Programak egiteko laguntzak ematen dira.

#### Irakurketa sustatzeko kanpainen eta laguntzen aurrekontuen laburpen-koadroa

	2009		2010	
“Munduko paisaiak» kanpaina	60.000		60.000	
“Bularretik Mintzora» kanpaina	60.000		55.440	
Audioliburuen mailegua	--		36.000	
Irakurketa eta zerbitzuen erabilera sustatzeko laguntzak	Laguntza jaso duten Udalak/ Erakundeak	Diru-laguntzak €	Laguntza jaso duten Udalak/ Erakundeak	Diru-laguntzak €
	150	206.000	154	182.516

### 2.3. Dokumentu ondarea

#### Sektorea. Euskadiko Artxibo Sistemaren eragileak: asko eta askotarikoak

Kultura ondarea osatzen duten elementuetako bat Dokumentu Ondarea da; oroimen kolektiboaren oinarria izanik, herritarrek iragana ezagutzeko eta ulertzeko iturburu dugu, bai eta kultur jarduerak gauzatzeko ere. Euskadiko artxibategien eta dokumentu-ondarearen politika Iragri, Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentrotik diseinatzen eta lantzen da. Azkeneko urte hauetan euskal agiritegien mapa osatzen duten eragileei laguntzeko Programak bideratu dira, udal agiritegien kudeaketatik hasi eta agiritegi pribatuak –familienak eta Eliza Katolikoarenak, batez ere– antolatu eta ezagutzera emateraino. Politika horiek administrazio publiko bakoitzaren autonomian oinarrituta, baina lankidetzazko kudeaketaren ikuspegitik abiatuta gauzatzen dira, Euskadiko Artxibo Sistemari dagokion bezala.

Kulturaren Euskal Behatokiak Iragriekin batera egindako lehenengo *Artxibategien Estatistika 2009*ren arabera, 302 zerbitzuz osatzen dute euskal agiritegien mapa, eta horietako %86 udal administrazioenak dira. Erakundeek edo pertsonak beren lanean edo jardunean jasotzen edo sortzen duten dokumentazioa berez pausatzen utzi ondoren eratzen dira artxibategi edo agiritegi-funtsak. Funts horien %70 udal administrazioetako artxibategietan dago, baina datari begiratzen baldin bazaio, Elizaren agiritegietan aurkitzen da antzinako dokumentazio gehiena (%87). Da-

tuek garbi uzten dute dokumentazio hori kudeatzeko egindako lana; hain zuzen ere, artxibategien %82,4k badituzte deskribatzeko baliabideak; horrek esan nahi du informazioa biltzeko, aztertzeko, antolatzeko eta erregistratzeko lana egina dela.

Dokumentazioa gordetzeaz eta zaintzeaz gainera, dokumentazioa jasotzeko, transferitzeko eta ezabatzeko barne lana ere egiten dute artxibategiek, eta horrez gainera dokumentu kultura eta dokumentu ondarea erabiltzaileei, bisitariei eta jendeari, oro har, erakusteko eta eskaintzeko lanak ere bai. Berez funtsezkoak diren eginkizun horiek guztiz aldatu dira teknologiak funtsak digitalizatzeko eskaintzen dituen aukerak erabiltzen hasi direnean.

### Jarduera-ildoak. **Euskadiko Artxibo Sistema egituratzea**

- **Proiektu estrategikoak eta arauak garatzea. Etorkizunerako hiru proiektu handi**

Azkeneko urte hauetan Irargiren ekimen estrategikoak hiru norabidetan joan dira: Euskadiko Artxibo Historiko Nazionala izango dena eraikitzea eta haren zerbitzuak eta premiak diseinatzea, Artxiboen Legearen aurre-proiektuaren zirriborroa prestatzea eta Plan Estrategiko Digitala.

**Euskadiko Artxibo Historiko Nazionala (EAHN)**, Bilboko erdialdean kokatuko da eta Euskadiko Dokumentu Ondarearen gordailu, kontsulta eta zabalkunde-zentroa izango da, bai eta Euskadiko Artxibo Sistemaren goreneko zentroa ere. 2009an eraikitzeko lanen kontratuak esleitu ondoren, elkarlan estuan jardun dugu eraikuntza lana garatzen, Irargik koordinatutako Zerbitzuaren diseinuan oinarrituta. Zerbitzuaren transferentzia-prozesua ere diseinatu da, eta orobat artxibo-funtsak sartzeko programa kudeatu ere. 2010ean 5 milioi euroko partida bat xedatu da proiektu honetarako.

Araudiaren garapenari dagokionez, **Artxibategien, Dokumentuen eta Ondare Dokumentalaren Legearen Aurreproiektuaren Zirriborroa** osoki landu da berriro; legezko arkitekturaren eta arau-edukien proposamena erredaktatzea esan nahi du horrek. Helburu horrekin diziplina arteko teknikari-lantalde bat antolatu dugu, eta zuzendaritza eta kudeaketa-lanak Irargik hartu ditu bere gain.

2010ean **artxibategiak digitalizatzeko plana** landu da. Artxibo-ondareak digitalizatzea Irargirentzat gauza berria ez bada ere, mundu digitalaren bilakaera bizkorak egoera aztertzea eta lehentasunak definitzea eskatzen du, etorkizunari zentzuz aurre egiteko. Orain arte egindako lanak guztiz abiaburu egokia eskaintzen dio Irargiri, 2007az gero bultzatu den digitalizazio-Programak eta normalizazioan eta arkitektura teknologikoan egindako urratsek eman dioten eskarmentu eta ezagutzagatik. Honi dagokionez, esan beharra dago, orobat, EAHNen gordailu digitalaren arau teknikoak eta premien diseinua erredaktatu direla.

- **Euskadiko Agiritegi Sistema. Sektore honi laguntzeko politikak**

Euskadiko Agiritegi Sistema sendo, egituratu eta eraginkor bat garatzeko eta finkatzeko bultzatzen diren politiken helburua hauxe da: artxibatze sistemak sortzen, funtsak digitalizatzen, dokumentazioa ebaluatzen eta aukeratzeko zein sektore honetako profesionalak trebatzen laguntzea.

Informazio-baliabideen eta herritarren oroimena bera sortzeko baliabideen kudeaketa bermatzeko ezinbestekoa da artxibo-sistemak ezarri eta egituratzea, eta horretarako zenbait diru-laguntza ditugu:

- **Udal Administrazioentzako Programak.** Agindu honen bitartez udalek esparru honetan duten erantzukizuna behar bezala betetzeko artxibo-sistema egokiak erabiltzera bultzatu nahi ditugu, bai eta artxibategiaren ikuspegi orokor bat sustatu, administrazio, informazio edota kultura premiei erantzuten dien zerbitzu bat den aldetik. 390.000 euroko diru-laguntzak xedatu ziren 2009an udal artxibategietarako eta 380.000 eurokoak 2010ean. Eskualde mailako artxibategiei ere eman zitzaizkien laguntzak Agindu honen bidez; horiez gainera, Arabako Kontzeju Elkarteari (AKE) emandakoa ere kontuan hartu behar da, 2009an eta 2010ean 88.000 euroko zuzeneko laguntza berezia jaso baitzuen.
- **Publikoak ez diren artxibategiek** ere jasotzen dute laguntza, antolatze, deskribatzeko eta artxibo-sare publikoan txertatzeko, Agindu berezi baten bitartez. 2009an 200.000 euro bideratu ziren hamabi proiektutara, eta 2010ean 180.000 euro hamazortzi proiektutarako.
- **Garrantzia bereziko artxibategi-zerbitzuak** zuzeneko laguntza bereziz laguntzen ditugu; zortzi erakunde izan ziren laguntza horien hartzaileak: J. M. de Barandiaran Fundazioaren Artxibategia, Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa, Euskadiko Filmategia, Sabino Arana Fundazioa, Ramón Rubial Fundazioa eta elizbarrutietako hiru artxi-boak. Guztira 474.000 euro 2009an, eta 339.000 2010ean.

Beste erakunde batzuei laguntzak emateaz gainera, bere artxiboko funtsak deskribatzeaz ere arduratzen da Iragi. Ildo honetatik, Iragirik dituen edo Iragiri utzita dauden artxibo historikoko funts orokorren (XV-XX. mendeak) inbentarioa egiten jardun dugu, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoen (1936-1976) inbentario zehatza eta eraketa ere. Horrezaz gainera, Euskadiri buruz Euskal Autonomia Erkidegoan edo kanpoan (Aragoi, Madril, Nafarroa) dauden jabetza pribatuko artxibo-funtsak berreskuratzeko eta deskribatzeko ohiko lanei ere heldu zaie. Horretarako hitzarmenak sinatu dira jabeekin Euskadiko sare publikoan sartzeko eta, zenbaitetan, gordailuan, emaitzaz edo erosiz funtsak eskuratu ahal izan dira.

Halaber, Iragirentzat **dokumentu-ondarea digitalizatzea** ere lehentasunezko eginkizuna izanik, urteroko Aginduaren bidez 42 proiektutarako laguntza eman zen 2009an –400.000 euro guztira–, eta 2010ean 385.000 euro 47 proiekturen artean banatuta.

**Dokumentazioa ebaluatzeko eta aukeratzeko** politika bat egin ahal izateko, baloratzeko eta garbitzeko zenbait bazterde kudeatu eta antolatu behar izan dira. Horrezaz gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Administrazioi

dokumentu-sailak identifikatu, baloratu eta aukeratzeko txostenak egiteko kontratua koordinatu da; urtealdi bakoitzean 30.000 euro xedatu dira horretara.

Langileak birziklatzeko eta kualifikatzeko premiei dagokienez, sektore honetako gaitasunak garatzeko prestakuntza berezi bat behar dute Artxiboen Euskal Sistemako profesionalak. ALDEE sektore honetako Euskadiko profesionalen elkarteak antolatzen duen formazio-lanak baldintza hori betetzen duenez, Irargik hitzarmen bat du elkarte horrekin eta, horrela, urtean 25.000 euroko laguntza bideratu da azkeneko bi urtealdi hauetan. Ezagutza lortzeko beste bide bat Espainia osoan (Bilbo, Donostia, Vitoria-Gasteiz, Madril, Valentzia eta Ronda) zein Europako beste herrialde batzuetan (Frantzia, Italia, Belgika, Holanda eta Txekia) izan diren udako ikastaroetara eta topagune espezializatuetera joan eta parte hartzea da.

Eta, azkenik, interesgarria da euskal artxibo-zerbitzuen jarduerari buruzko datuak edukitzea ere. Honetarako, Kulturaren Euskal Behatokiarekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko lan estatistikoaren lehenengo edizioa –2009– egin da. Bi urtez behingo ikerketa honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen egoera, funtsen bolumena, era guztietako baliabideak eta barrurako eta erabiltzailearentzako zerbitzuak ezagutzen laguntzen duen informazioa lortzen da.

#### Artxiboen sektorerako laguntzen laburpen-koadroa

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Diru-laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Diru-laguntza €
Udal administrazioiko artxiboentzako diru-laguntzak	32	389.820	42	380.000
Publikoak ez diren artxiboentzako diru-laguntzak	12	200.000	18	180.000
Artxibo berezientzako diru-laguntzak	8	474.000	8	339.000
Dokumentu-ondarea digitalizatzeko diru-laguntzak	42	400.000	47	385.000
Beste zuzeneko laguntza berezi batzuk	4	253.000	3	213.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>98</b>	<b>1.716.820</b>	<b>118</b>	<b>1.497.000</b>

- **Zabalkundea.** Zerbitzuen kanpoko proiektzioa

Artxibo zerbitzuen erabiltzaileak euskal geografia osoan banatuta dauden ekipamenduetara jotzen dute dokumentatzera, eta gero eta gehiago erabiltzen dituzte teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak ere, beren etxeetatik edo ikerketa-zentroetatik sartuta dokumentatzeko. *Artxiboen estatistikako* datuek erakusten dutenez,



Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo-zerbitzuek 170.000 erabiltzaile inguru izan zituzten 2009. urtean, eta ia 3,5 milioi kontsulta egin ziren, gehien-gehienak web orriaren bidez (10etik 7). Irargi ere horren barruan dago, zeren erabiltzaileen kontsulta eta eskaerak Bergarako instalazioetan bertan ez ezik sarearen bitartez ere erantzuten baititu.

Helburua betiere gero eta eduki aberatsagoak eskaintzea izanik, garai honetako ekimenik oinarrizkoenetako bat Euskadiko Artxibo Sistemaren web ataria irudi digitalekin aberastea izan da. Horretarako atari berria sortu da, aurrekoaren zerbitzuak hobetu (5 milioi erreferentzia) eta dokumentu-ondare eta artxiboetako dokumentazioaren irudiak kargatzeko prozesua diseinatzen hasi da (milioi bat irudi 2010-2011 bitartean). Orobat, formatu digitalak homologatzeko prozesua kudeatu da, dokumentu funtsak aukeratu, kargatzeko prozesua koordinatu eta diru-laguntzen bidez eskuratutako jabetza pribatuko eta publikoko dokumentu digitalak normalizatu.

Argitalpenei dagokienez, bi lan berri atera dira: *Gerra Zibilak Euskadin izan zuen bilakaerari buruzko iturri dokumentalen eta bibliografikoen gida (1936-1939)*, Eusko Ikaskuntzarekin batera 2009an argitaratua, eta *Euzko Jaurlaritzaren funtsa (1936-1979): historia eta edukia*, Leyre Arrieta Alberdik idatzia. Era berean, Artxiboan Nazioarteko Kontseiluaren (CIA/ICA) bi arau euskaratu dira, 2011n argitaratzeko asmoz..

## 2.4. **Kultura-ondarea**

### Sektorea. **Kultura-ondareari buruzko ikuspegiaren bilakaera**

Ondarea gizartearen nortasuna finkatzeko eta integratzeko garrantzi handiko baliabidea da gaur egun, gizarteak berea bezala hartzen duen iraganaren herentzia den aldetik; baina gizarte honek bere garapena bultzatzeko edo herritarrek gozatzeko edo ekonomia biziberritzeko baliabide bezala erabiltzeko eskubidea duen altxor bat ere bada, aldi berean.

Euskadik kultura-ondare aberatsa du, eta ondare hori zaindu eta babesteko betebeharra du. Kultura Ondarearen 7/1990 Legeak agintzen duen bezala, aginte publikoen jokabidea gidatu behar duten printzipioetako bat kultura-ondarea babestea, defenditzea eta aberastea izan behar du, haren erregimen juridikoa eta jabetza zeinahi delarik ere. Ondare horren garrantzia guztiz apartekoa denean, gizadi osoaren herentziazat hartzen da. Halakoak dira Santimamiñe, Ekain eta Altxerriko haizuloetako margolanak eta Bizkaiko Zubia, UNESCOk Gizadiaren Ondare izendatuak.

Kultura-aztarren horiek guztiek gure historiaren eta gure paisaia fisiko eta emozionala osatzen dute. Gure oroimena euskarriak dira, eta geuk sortu eta, duten balioagatik, gordetzea merezi duten elementuekin batera, hurrengo belaunaldiei utzi behar diegun herentzia dira.

Ezinbestekoa da herritarrek ondarea ezagutzea eta estimuan edukitzea, zeinen erraz gal daitekeen ohartzea, eta oroimena –gaur egungo gizartearena eta etorkizunean izango diren belaunaldiena den herentziaren gordailua– galtzeak zer dakarkeen garbi izatea. Zentzu hori izan dute Kultura Ondarearen Zentroaren ekimenek.

### Jarduera-ildoak. **Ondarea hobeto ezagutzeko, hobeto baloratzeko eta hobeto zaintzeko**

- **Proiektu estrategikoak eta arauak garatzea Antolamendurako eta etorkizuneko garapenerako oinarriak**

Planifikazioari dagokionez, Kultura Ondarearen Zentroa buru-belarri sartuta dago proiektu hauetan:

- **Ondare Higiezinaren Plan Gidaria:** honen bitartez Kultura Ondarearen Katalogoak eta Inbentarioak kontzeptualki berritu, informazio-bilketa normalizatu eta, estandarrak sortuz, ondare horren babes masiboa bultzatu nahi dugu.
- **Komunikazio Plana.** Ekimen honen helburua zabalkundea da; gizarte osoari gure ondarearen berri eman nahi diogu, eta hala herritarren artean geure Kultura Ondarea dugulako poza eta harrotasuna zabaltzea. Ondareak garapen ekonomikoa eta soziala lortzen izan dezakeen eragile papera jendartera zabaltzea. Ondareak garrantzitsua da, era berean, ondarea aise honda daitekeela ikusaraztea, hirigintzan aritu beharreko kokapenetan egon ohi baita, eta maiz horrek presio handia eragiten baitio. Ez da ahaztu behar, azkenik, ondarea erabiltzeak eta gozatzeak ere badutela beren balioa.

Beste alde batetik, Logroñoko Udalarekin batera, elkarlanean, Mantibleko zubia, Euskal Herriko zubirik adierazgarri eta zaharretako bat, ezagutarazteko Plan Estrategikoa landu dugu.

Planifikaziorako tresnekin batera araudien erreformak eta garapenak aipatu behar, Kultura Ondarearen esparruan kudeaketa eta esku-hartzea egituratzen duten egiazko ardatzak. Bistan da esparru honetako zeregin nagusia uztailaren 3ko Kultura Ondareari buruzko **7/1990 Legearen erreforma** dela. Dagoeneko kontratatuta dago lehenengo azken xedapenaren Arauzko Garapena egiteko lana, zeren esaten baitu Eusko Jaurlaritzak onartu behar dituela, erabakitzen den aldiorokotasunez, kultura ondarea hobeto babesteko eta zaintzeko arau orokorrak.

Aipatzekoa da, orobat, Ondare Arkitektoniko Monumentalaren eta Ondare Arkeologikoaren **Aholku Batzordeak** antolatzeko eta funtzionatzeko **Dekretuen** zirriborroen prestakuntza. Azkenik, sinatzeko epean dago Ondasun Higiezin babestuetan, Eraikuntzaren Kode Teknikoa aplikatuz, eguzkiaren indarra hartzeko ekipoak instalatzeko jarraitu beharreko irizpideen onspena.

- **Ondarea babestea. Kalifikatzea tresna gisa**

### *Babesteko mekanismoak*

Monumentu, Monumentu Multzo eta Balizko Arkeologia-Gune deklaratzeko dira babesteko mekanismoak, bi mailatan: batetik, Saikaturako Kultura Ondasunen Erregistroan sartzen diren Ondasun Kalifikatuak; bestetik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzen diren Ondasun Inbentariatuak. Elementu berezi gisa, azpimarratzekoa da Done Jakue bidea Saikaturako Monumentu Multzo gisa Babesteko Dekretuari egindako aldaketa, informazioa berrituz eta gaurko egunera egokituz; bidean zehar dauden 300en bat ondasun higiezin sartu dira, eta horrela Done Jakue bideari atxikitako Ondasun Higieziinei dagokien babesa eman zaie.

Ondare higigarriari dagokionez, aipaturako babes horrez gainera, arte-lanen esportazioa ere kontrolatzen da; bezaz, mugatik igaro baino lehen behin betiko zein aldi baterako erakusketarako esportatzen diren gaien antzinatasuna bermatzen duten ziurtagiriak ematen dira.

### **Ondarea babesteko mekanismoen emaitzen laburpen-taula**

	2009-2010
Saikaturako Kultura Ondasunen Erregistroan eta Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzea	Monumentu Multzoak: 5 (banakako 114 monumentu sartzen dira guztira) Monumentuak: 25
Saikaturako Kultura Ondasunen Erregistroan sartzeko hasitako espedienteak	Monumentu Multzoak: 6 Monumentuak: 4 Done Jakue bideko Monumentu Multzoa: banakako 694 elementu
Aldatzeko, Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeari egokitzeko eta deseragiteko espedienteak	Burututako espedienteak: 5 aldaketa Hasitako espedienteak: 6 aldaketa
Kultura Ondarearen babes-mailen ziurtagiriak	73 ziurtagiri
Arte-lanak esportatzeko baimenak	90 ziurtagiri

Aise ikus daitekeen bezala, Ondarearen Zentroak ondarea babesteko egiten duen lana lan handia da, era askotako administrazio-espediente ugariaren izapideak egin behar izaten baititu. Horregatik, informatikaz baliatuz izapide horiek guztiak mekanizatu nahi dira, eta 18 espediente mota desberdinetarako eredu homologatuak sortu nahi dira, bai administrariei bai teknikariei lana errazteko eta denbora aurreratzeko.



Informazioa kudeatzeko ildo honi beroni jarraituz, ondareari buruzko informazio-sistema bateratuak –«Integra» izenekoa– plataforma informatiko batzuk diseinatuko ditu Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren informazio-sarea antolatzen, kudeatzen eta kontrolatzen laguntzeko, bai eta Saillkatutako Kultura Ondasunen Erregistroa eta Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusia kudeatzen ere.

Ondarea behar bezala babesteko, Kultura Ondarearen Inbentario eta Katalogo guztiak eguneratuta eta berrituta edukitzea eta ondasunen geografiazko erreferentzia fidagarria edukitzea ezinbesteko baldintzak dira. Horregatik, hain zuzen, urtero inbentario berriak egiten dira edo daudenak eguneratzen, elementuen balorazio bat ere sartuz, horrela geroago Kultura Ondasun Kalifikatua edo Saillkatua deklaratu den guztiaren ikuspegi global bat izan ahal izateko.

Aplikazio informatiko baten bidez Kultura Ondarearen irudiei dagokien guztia jasotzen da, Kultura Ondarearen Artxibo Grafikoa osaturik: 64.000 diapositiba, irudi digital eta argazki-negatibo inguru ditu.

Garai honetan zehar Katalogoen eta Inbentarioen datu-baseetan elementu berriak sartu dira edo lehengoak berritu dira: 2.010 erregistro, guztira. Material arkeologikoen eta paleontologikoen katalogazioak 83.373 erregistro ditu guztira. Aipatu beharra dago, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Paisaien Katalogoa eta Bizkaiko Mendiolen Katalogoa egiteko, Bizkaiko Katalogo Arkeologikoa berritzeko eta osatzeko eta, azkenik, irudiak digitalizatzeko egindako kontratuak.

### *Hirigintzako planeamendua eta ingurumena*

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak agindutakoaren arabera, eta udalek hala eskatuta, planeamenduko tresnak erredaktatu baino lehen, babestuta dauden eta babesteko proposatuta dauden ondasunen zerrenda bidaltzen da. Geroago, hirigintzari dagozkion dokumentuak, Lurraldearen Antolamendukoak eta haien aldaketak erredaktatu ondoren, Ondare Higiezinetan izan ditzaketen eraginaren eta behar diren zuzenketen berri jakinarazten da. Txosten horiek bete beharrekoak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzarrean (ELAB) defenditzen dira, edo Monumentu Multzo izendatuta dauden Herriguneetan eragina duten Plan Bereziak direnean, dagokien udalei bidaltzen zaizkie zuzenean. Hirigintzako dokumentu horiei behin betiko onarpena eman baino lehen, betiere, hori dena.

Ingurumenari dagokionez ere bi eratako txostenak ematen dira: batzuk planek eta programek ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko 9/2006 Legeak agintzen duenaren arabera; beste batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrek agintzen duenaren arabera, obra edo ekimen batzuek ingurumenean duten eraginari dagokionez.



### Planeamendu eta ingurumeneko mekanismoen emaitzen laburpen-taula

	2009-2010
Ondasun arkitektoniko eta arkeologiko higiezinaren zerrenda bidaltzea	30 informes
Hirigintza-planeamenduari eta Lurraldearen Antolamenduari dagozkion txostenak	289 planes revisados 42 informes defendidos en la COTPV 41 informes remitidos a DDFF y Ayuntamientos 18 informes solicitados por otros organismos
Ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuko txostenak	372 informes

Beste alde batetik kultura-ondasun kalifikatueta, inbentariatueta eta balizko arkeologia guneetan eragina duten hirigintza-planeamenduko tresnak erredaktatzeko eta aldatzeko laguntza-deialdiak egiten dira. 2009 burutzeko urtebeteko epea baino luzeagoa (2009-2011) zuten sei proiekturi eman zitzaien laguntza; 331.000 euro izan ziren guztira; 2010ean bost laguntza eman ziren, beste horrenbeste proiekturi, eta 250.000 euro bideratu ziren guztira laguntza hauetarako.

- **Ondarea sustatzea eta ezagutaraztea.** Ondarea, balio handiko baliabidea

Ondarea sustatzea eta balioztatzea kultura-ondarea babesteko, aberasteko, zaintzeko eta sustatzeko diru-laguntza Agindu batez gauzatzen da, «kulturarako ehuneko bat» izenekoaren bitartez finantzatzen dena. 2009an 23 proiekturi eman zitzaizkien laguntzak, urtealdi hartan erabiltzeko 3 milioiko kopuru batez. 2010ean, berrikuntza gisa,



EAEko Aurrekontu Orokorretan ezarritako urte bat baino gehiagorako (2010-2012) aurrekontu-partida batetik datoz ondarea babesteko, aberasteko, zaintzeko eta sustatzeko baliabide ekonomikoak. 23 proiekturi eman zitzaien laguntza, 2.509.698,60 euroz; 836.566,20 euro 2010ean erabili ziren, 789.957,62 euro 2011n eta 883.174,78 euro 2012an.

**Ondare arkeologikoari dagokionez**, Eusko Jaurlaritza da material arkeologikoen eta paleontologikoen jabea, jabetza publikoko ondareztat deklaraturata baitaude. Bizkaian eta Araban lurralde hauietako Museo Arkeologikoak izendatu ziren material horien Gordailu Zentroak izateko. Gipuzkoan, berriz, lurralde honetako Museo Arkeologikorik ez dagoenez, Eusko Jaurlaritzak berak kudeatzen du, Donostiako Zentroan. Instalazio hauetan bideratzen da indusketen edo bestelako esku-hartzeen ondoren materialak emateari dagokion guztia, eta horietan egiten dira, orobat, erkaketa guztiak, materialik hauskorrenak bereizita, azkenean behar den lekuan instalatzeko. Zaharbertitzeari dagokionez, kalteak ekiditeko tratamendua eta behar denean konpontzeko tratamendua ere egiten zaie. Ondorioz, 315 piezari eman zaizkie dagozkien tratamenduak. Azkenik, Zentro honetan harrera egiten zaie, orobat, bertan gordeta dauden funtsen kontsulta egin nahi duten ikertzaileei. Kontsulta-aretoa 468 aldiz erabili da.

Material arkeologikoen kudeaketari dagokionez, aipatzekoa da, oraindik ere garatzen ari den aplikazio informatiko bat diseinatuz eta sortuz, sarean kudeatu nahi direla, Gordailu Zentroekin batera, material arkeologikoak eta paleontologikoak. 50.000 erregistro sartzeko proiektu pilotua presatatu da.

Esan beharra dago, azkenik, urtero ematen direla, agindu batez, aurkitu diren material arkeologikoak eta paleontologikoak katalogatzeko diru-laguntzak. Aurrez definitutako datu-base bat ematen zaie, erregistroak denentzat berdi-

nak izan daitezten, eta arau zehatz batzuk jarraitzen dira tipologia desberdinak katalogatzeko. 2009an 18 proiekturi eman zitzaizkien laguntzak –168.200 euro, guztira–; 2010ean 14 proiekturi –112.000 euro guztira–.

2009az geroztik **Industria Ondarearen** katalogatzeari eta ezagutarazteari ari zaie garrantzia ematen; hala, besteak beste, Industria Paisaien Katalogo bat egin dugu, oraingoz 22 paisaia aukeratuta, gero horiei lege-babesa emateko; horrezaz gainera, EAEko industriaren munduko eraikin eta elementu esanguratsuenen argitalpen bat prestatu dugu, industriako material higigarriko 1.512 pieza biltzeko gordailu bat mantentzen dugu eta gaur egun desagertuta dauden zenbait lantegiren eta haietan egiten ziren produktuen irudi multzo handi bat (733 irudi guztira) erosi dugu, «Fondo Pascual» deitua, balio handikoa.

Ondarea sustatzeko beste bide bat **ondare eragileekiko elkarlana** da, eskuarki Kultura Ondarearekin loturaren bat duten taldeekin formalizatzen diren laguntza izendunen edota laguntza berezien bitartez. Hauen artean daude Miramar Jauregia Partzuergoa, Labayru Ikastegia (*Euskal Herriko Atlas Etnografikoa* eta *Etxea eta Familia Euskal Herrian*), Barandiaran Fundazioa eta Sahara Elkarte. Erakunde hauei emandako diru-laguntzak 116.500 eurokoak izan ziren 2009an eta 209.374koak 2010ean.

Eta, azkenik, ondarea balioztateko asmoz, era askotako **kultura-azpiegituretan** bideratzen dira ekimenak, hala nola Labe Garaia (Sestao), Arantzazuko kriptak, Santa Maria katedrala (Vitoria-Gasteiz), Ekainberri, Antigua (Zumarraga), Hondarribiko harresiak, Añanako Gatz-Harana, San Markos gotorlekua (Errenteria) eta Aieteko Jauregia (Donostia). 2009an azpiegitura hauetarako bideratu ziren diru-laguntzak 3.078.360 eurokoak izan ziren guztira, eta 2010ean 2.520.971 eurokoak.

#### Ondarearen sustapenerako emandako diru-laguntzen laburpen-taula

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Diru-laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Diru-laguntza €
Babesteko, aberasteko, zaintzeko eta sustatzeko laguntzak	23	2.999.960	23	2.509.698
Ondare arkeologikoa katalogatzeko laguntzak	18	168.200	14	112.000
Taldeentzako laguntzak	2	116.500	4	209.374
Azpiegituretarako laguntzak	9	3.078.360	7	2.520.971
<b>GUZTIRA</b>	<b>52</b>	<b>6.363.020</b>	<b>48</b>	<b>5.352.043</b>

- **Lankidetzak. Eragileen arteko sareko lana**

Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da Zain Fundazioaren, Kultura Ondarearen esparruan diharduen Bikaintasuneko Ikerketa Zentroaren Patronatuko kidea dela Kultura Saila. Horrez gainera, Kultura Ondarearen Zentroa Espainiako eta Europako beste proiektu batzuetan ere sartuta dago, hala nola:

- **EAE «Europako Haitzuloetako Historiaurreko Artearen Bideak» (EHHAB) Nazioarteko Elkartean sartzea.** 2009an Europar Batasunaren aurrean Kultura Ibilbide horren hautagaitza prestatu zen, eta 2010ean izendapena lortu.
- **Done Jakueko Kontseiluko Lantaldeak.** Iparraldeko Done Jakue bideak Munduko Ondare izendatzeko hautagaitza bezalakoak sartzen dira hemen. Galizia, Asturias, Kantabria eta Errioxarekin batera, Done Jakue bideko kultura-ekimenak programatzeko, koordinatzeko, sustatzeko eta ezagutarazteko lantaldean parte hartzen dugu, bai eta azpiegiturak eta seinaleak prestatzen ere.
- **Kulturako Ministerioak koordinatzen dituen lantaldeak,** gainerako erkidego guztiekin batera: Industria Ondarearen Plan Nazionala, Orainsuko Arkitekturaren Plan Nazionala, Kultura Ondarearen lapurretari buruzko Lantaldea, Kultura Ondareari dagozkionetarako Kontratuen Legearen aldaketetarako Lantaldea eta Espainiaz kanpo arkeologia-proiektuak egiteko laguntzak baloratzeko Batzordea.
- **Ondare Historikoaren Kontseiluaren Lantaldeak,** Mundu mailako Ondareari dagokionez lanean ari diren bi lantalde, zehazki.

Besteren artean, honako erakunde hauetan ere partaide gara: EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordea (ELAB), Basquetour, Ekainberri, Barandiaran eta Zain Fundazioen Patronatuak, Euskadi Informazioaren Gizartearen Planaren Batzorde Teknikoa eta Done Jakue bideko Kontseiluaren eta Ondare Historikoaren Kontseiluaren Batzorde Eragileak.

- **Zabalkundea. Ondarearen balioa ezagutaraztea**

Kultura Ondarea sustatzea eta ezagutarazteak bi helburu ditu: gizarteak dituen kultura-premiak asetzea eta ondare horren garrantziaz jakitunago egitea.

Kultura Ondarearen Zentroaren egitekoetako bat egiten zaizkion kontsultei eta informazio-eskaerei erantzutea da. Era guztietara (Internetez, telefonoz, posta elektronikoz, idatziz...) jasotzen eta erantzuten ditugun eskaerez gainera (1.000tik gora), Kultura Ondarearen Zentroan bertan eskaintzen den arreta zuzena ere garrantzi handikoa da. Arreta hori eskatzen duten sektoreak hirigintzako planeamenduak erredaktatzearekin zerikusiren bat duten profesionalak eta ingurumen-eragineko enpresak izaten dira gehienbat.

### Argitalpenak, ikus-entzunezko materialak eta erakusketak.

Bideratu diren ekimenen artean, aipatu beharrekoa da zenbait argitalpen, bideo, bisita birtual eta erakusketa prestatu eta editatu izana. Lehenik eta behin, argitalpen hauek egin dira:

- *Arkeoikuska 08, 09, 10.*
- *Los ojos del mar / Itsasoari so.*
- *Sahara mendebaldeko Tiris eskualdearen iraganeko kultura ezagutzeko ekarpena.*
- *Sahara mendebaldea. Basamortu bizi baten zertzeladak, Sahara mendebaldeko lurralde askeetako Tiris eskualdetik.*
- *Los caminos del Norte a Santiago.* Kantabria, Asturias, Galizia eta Errioxako Erkidegoekin batera argitaratua.

Horrez gainera, San Fernando Akademiako euskal arkitekto eta obra maisu neoklasikoei buruzko argitalpen baterako ikerketa, testu-prestaketa eta dokumentazio-lana egin da, 2011n argitaratzeko.

Ikus-entzunezko materialen artean, Ekaingo Santutegi Paleolitikoari buruzko bideo dokumentala, *Estazio Megalitikoak* bisita birtual multzoan bisita gehiago sartzea web orrian, eta Altxerriko (Gipuzkoa) santutegi paleolitikoko grabatuak 3Dtan jasotzea.

**Done Jakue bidea.** Gure Kultura Ondareko aberastasunik nabarmenen eta ezagunenetako bat da, zalantzarik gabe. Done Jakue bidearen inguruan diren proiektuen artean bi aipatzekotan, Ibilbidea eta Done Jakue bidea Monumentu Multzo deklaratzeko Dekretua aipatu behar. Urte hauetan zehar Done Jakue bidearen ibilbidea formalizatu da, eta ahaleginak egin dira erromesentzat bide seguruak bilatzeko, errepideak saihestuta eta lur publikoetatik igarota. Bide osoa seinaleztatu da, gainera, eta urtero egiten dira falta



diren seinaleak berriro jartzeko kanpainak. Era berean, herritarrei, elkarteei eta erromesei Done Jakue bideari dagozkion guztiez erantzuten zaie, eta «leku arazotsuak» saihesteko azterketak egiten dira, udalekin eta Bidearen Lagunen Elkarteeekin batez ere, bestelako aukerak bilatzeko asmoz.

**Ikastaroak, hitzaldiak eta gisako ekimenak.** Hitzaldiak antolatu dira espetxeetan eta, Etxepare Institutuaren bitartez, Cervantes Institutuaren Europako zentro batzuetan.

UPV/EHUren Udako Ikastaroetan, bi ikastaro antolatu ziren 2010ean Miramar Jauregiko egoitzan: «Kultura Ondarearen babesa eta kudeaketa» eta «Iparraldeko Done Jakue bideak, kultura eta turismo-bide integral eta iraunkorra».

Ekimen horiekin batera, Eusko Ikaskuntzak antolatuta Euskadi eta Nafarroako Ondare Historiko-Artistikoari buruz egindako jardunaldietan barruan beste ikastaro eta ponentzia batzuetan parte hartu izana aipatu behar da. Eta orobat Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismoko Sailburuordetzarekin eta beste Autonomia Erkidego batzuekin batera (Kantabria, Asturias, Galizia eta Errioxa) Done Jakue bidea ezagutarazteko Programak abian jartzen parte hartu izana ere.

Azkenik, Munduko Ondareari buruzko Iberoamerikako Gazteriaren Hirugarren Foroa ere antolatu dugu.

### 3. **Etorkizuneko erronkak**

Ondare-aberastasuna da kultur eta gizarte errealitatea eraikitzeke oinarria eta, alde horretatik, gizartearen koherentsia eragiten duen faktore bat. Kultura ondareari buruzko politikaren erronka nagusia aberastasun hori ezagunago, baloratuago eta babestuago izan dadin lortzea da.

Ondare ezagunago bat, osatzen duten elementuak ezagutaraziz eta zabalduz, bai eta zaintzeak eta babesteak dakartzan zailtasunak ere ezagutzera emanaz. Ikuspegi honetatik, ZAIN Fundazioa sortu eta garatzeak –Eusko Jaurlaritzako Fundazio horren patronatuko kidea da– are eragingarriago bihurtuko du ondare kulturala eta soziala aztertzeke eta ikertzeke dagoeneko egindako lana. Garrantzi handia izango duen beste proiektu bat Konsoni, Industria Lanaren Kultura Zentroa izango da, behinola Zorrotzaurreko fabrika izandakoan kokatua. Industria Kultura babesteke eta ezagutarazteke Plana garatzen ari da, hurrengo egitekeekin: industria-ondare higigarria biltzeke irizpideak definitzea, teknologia museoaren sarea sortzea, industriari buruzko ibilbideak proposatzea, zaharbertzeke lantegia, proposamen didaktikoak, etorkizuneko zentroaren beraren definizioa eta gai honi buruzko zabalkunde, ikerketa eta sentsibilizazio lanak. Nabaria denez, azterketaz eta ikerketaz gainera, guztion ondare hori gizarteari ezagutaraztea eta helaraztea ere etorkizuneko datozkigun erronka handietako bat da.

Hobeto baloratutako ondare bat izateak esan nahi du jakinaren gainean egon behar garela galduz gero erremediorik gabeko galera dela; esan nahi du, halaber, gizarte baten oroimen kolektiboa eratzten ondareak daukan pisuaz ohartzten garela, kidetasun-sentipenaren eta kohesioaren sortzaile denez gero. Horretarako, hain zuzen, kultura-ondareari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egingo dira. Kultura-ondarea ondasun publikoa, ondasun kolektiboa, guztion ondasuna delako irizpidea zabaldu nahi da, alegia.

Ondarea hobeto babesteak, ondare hori gordetzen eta zaintzen lagunduko duten kudeatzeko tresna eta sistema koordinatuak izatea eskatzen du. Zentzu honetan, Museoen eta Artxiboen alorrean abian dauden lege-garapenak, katalogoen eta inbentarioen informatizazioak eta estandarizazioak asko lagunduko dute euskal kultura-ondarearen babesa hobetzen. Hogeitaz hamar urte joan dira Kultura Ondarearen Legea indarrean jarri zenetik; lege hori aurrenekoa izan zen Espainiako estatuan, eta Kultura Ondarearen Zentroa sortzea eta haren eginkizunak definitzea ekarri zuen, beste lorpen askoren artean. Lege hori aplikatzeak ekarri duen eskarmentua, hartatik atera diren ikaskizun guztiak eta geroztik agertuz joan diren premia berriak kontuan hartuta, Lege hori berrikustea da etorkizunerako daukagun erronka nagusietako bat, jokatzeko modua arauetara hain loturik dagoen sektore honetan duen zuzeneko eragina dela eta.

Erakunde eta instituzio desberdinen lanari esker, EAEak museo, liburutegi eta artxibo zerbitzu eta azpiegiturasare zabala izanik, beharrezkoak dira koordinaziora eta sareko lanera bideratutako politikak, kultura-eskaintza zabal horretatik berez dituen aukera guztiak ateratzeko, are gehiago aurrekontuak oso neurtuak diren oraingoa bezalako egoeretan. Horregatik, bada, azken urte hauetan egindako lana dinamizatzeko eta ezagutarazteko sormena erabili beharko da. Dagoeneko hasita dauden eta etorkizunean garatzekoak diren proiektuei dagokienez, bereiz aipatzekoa da Balenciaga Fundazioaren Patronatuko kide izatea, dagoeneko ibilbidea finkatua duten beste zentro batzuekiko elkarlanaz edo Euskadiko Artxibo Historiko Nazionala (EAHN) eraikitzeaz gainera.

Azken urte hauetan indar handiz agertu da mundu digitala, ondarea zaintzeko eta kultura demokratizatzeko eta haren irisgarritasuna bideratzeko aukera berriak eskaintzen dituen irismen handiko tresna bat baita, izan ere. Eta batez ere erakunde publikoek dute kultur adierazpenetarako eta iraganeko, oraingo eta etorkizuneko ezagutarazteko irizpidea zaindu eta ziurtatzeko ardura. Liburutegiei dagokienez, teknologiak ekarri dituen aurrerapenak ulertzean eta horiei erantzutean datza erronka, eta hain zuzen ere alfabetatze digitalean dute liburutegiek oinarri-oinarrizko eginkizuna. Horretarako, lehendik dituzten eginkizunetaz gainera, liburutegiak mundu digitalera ere zabaldu beharko dira, zeren eta, gaur egungo joeraen arabera, izango baitute gero eta komunikazio-zentroak eta gizarte-informaziorako guneak izateko eginkizun handiago bat. Aldaketa honek harri-garritako etorkizun bat iragartzen du zerbitzu horientzat. Etengabe aldatzen ari den inguru honetan, Kultura Sailaren bi proiektuk –irakurketa sustatzeko Plan berriak eta Euskal liburutegi digitalak (LiburuKlik), bibliografia eta artxibo funtsak digitalizatzeko programez gainera, zer ekarri asko izango dute datozen urte hauetan kultura-ondarea biziberritzeko, gordailu digital berrien laguntzarekin.